



AKZIODUNEN ELKARTEA

S.D. EIBAR

ZURE AKZIOA. PAUSO BAT AURRERA

ZURE AKZIOA. PAUSO BAT AURRERA

eibarforever.org

betieibar.eus

info@betieibar.eus

Twitter: @Betieibar



ZER DA BETI EIBAR-EIBAR FOREVER AKZIODUNEN ELKARTEA?



Eibarko hainbat akzioen jabe diren talde batek bultzatutako elkarte da eta helburu nagusiak hauek dira:

Bazkideen eta klubaren arteko komunikazioa hobetzea, gaur egun Eibar K. Eren hutsune bat hori dela ziur gaudelako.

Akziodunen Batzarretan gero eta akziodun gehiago egon daitezen borrokatzea, Eibarko Administrazio Kontseiluak hauen iritzia entzun eta kontuan har dezan erabakiak hartzerako orduan.

NOLA EGIN NAHI DUGU?



Akziodunen kezkak bilduz, taldekatuz, lehenetsiz eta itxura emanaz, klubari transmititzeko posible diren formatuetan. Oraingoz, zure kezkak biltzeko, ondorengo web orriak eta emaila jartzen ditugu bai akziodunen bai zaleen eskura.

Web orriak: www.betieibar.eus www.eibarforever.org

Emaila: info@betieibar.eus

ZEINTZUK DIRA FORMATO HAUEK?



Eibarko akzioen %5a baino gehiago ordezkatzeko lortzen badugu, hau da, 2.310 akzio baino gehiago biltzen baditugu, Administrazio Kontseiluari Akziodunen Batzar Nagusietako gai-zerrendan puntuak sartzea eskatu edo Akziodunen Ezohiko Batzarretara deitu ahal izango diegu. Akzio-kopuru hori bikoizten baldin bada, Administrazio Kontseiluan kontseilari bat sartzera ere iritsi gaitzke.

NOLA EGINGO DUGU LAN?



Lehenik eta behin, ahalik eta bazkide gehien lortzen saiatuko gara, harremanetarako datuak eta bakoitzak dituen akzioei buruzko informazioa lortzeko helburuarekin. Horrela, zuen kezkak bideratzeko eta defendatzeko zenbat akziorekin kontaktu dezakegun jakin ahal izango dugu.

Ondoren, ahal bezain laster, bazkideen kezkei erantzungo dieten planteamendu zehatzak landuko ditugu, Akziodunen Batzarretara ahal dugun formatuan eramateko. Une horretan eskatuko dizugu zure akzioak guri eskuordetzeko. Hala ere, nahiago baduzu, elkarte honetan sartzen zaren unean, zure akzioen ordezkaritza iraunkorra egin dezakezu.

ELKARTEAREKIN NOLA LOTU NAITEKE?



Formularioa bete eta e-postaz bidali info@betieibar.eus helbidera. Afiliazioa doakoa da, baina urtean 10 euroko kuota borondatez ordaintzeko aukera dago, elkartearen gastuak finantzatzen laguntzeko.

NOLA JAKIN DEZAKET ZERTAN ARI DEN ELKARTEA?



Urteko Ohiko Batzarrak eta Zuzendaritza Batzordeak edo bazkideek antolatutako Ezohizko Batzarraz gain, hiru hilean behin informazio-buletin bat bidaliko dizugu, lantzen ari garen gaien berri emateko.